



Arartekoaren 2017R-2455-13 Ebazpena, 2017ko ekainaren 15ekoa; horren bidez, Guardiako Udalari gomendatzen zaio trafikoko araudia hausteagatik jarritako zehapen bat indargabetzeko (zehapen-prozeduraren zk.: 0489250).

Aurrekariak

1.-Herritar batek Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen, Guardiako Udalak Ertzaintzako agente batek bere ibilgailuaren aurka *“zona señalizada y pintada para el uso exclusivo de minusválidos o minusválías autorizadas”*en aparkatuta egoteagatik jarritako salaketa baten ondorioz ezarritako zehapena indargabetzeko.

Erakunde honi bidalitako idazkian, kexagileak adierazi zuen udalari alegazio-idazki bat bidali ziola; bertan, salatutako egitatea ezeztatzen zuen eta azpimarratzen zuen salaketa egin zen unean bere ibilgailua paraleloan aparkatuta zegoela, mugikortasun murriztuko pertsonak ibilgailuak aparkatzeko gordetako espazioa inbaditu gabe.

Horrez gain, adierazi zuen leku horretan ez zegoela aparkatzea debekatzen edo mugatzen zuen seinalerik eta salaketa jarri zuen agenteak berak salaketa berresteko idazkian agerrarazi zuela akats bat zegoela salatutako egitatearen deskribapenean.

Azkenik, alegatu zuen udalak ez ziola zehapen-ebazpena jakinarazi. Hortaz, ez zuen prozeduran ezarritako zehapenaren berri izan premiamendu-probidentzia jakinarazi zitzaion arte.

2.-Kexa izapidetzea onartuta, Arartekoak Guardiako Udaleko alkatearen laguntza eskatu zuen, bertan azaldutako gaien berri emateko eta erakunde honi emateko zehapen-prozedurari dagokion espedientearen kopia bat.

Eskaera horri erantzun ez zionez, Arartekoak errekerimendu bat egin behar izan zuen, eta horri ere ez zion erantzun. Hori dela-eta, erakunde honek mota desberdinetako kudeaketak burutu zituen, kexaren xede den gaiaren inguruko informazioa eskuratze aldera.

Kudeaketa horien ondorioz, udaleko ordezkariak Arartekoari bidali dio zalantzan jarritako zehapen-espedientearen kopia bat; bertan, honako dokumentazio hau agertzen da:

- Salaketa, non salatutako egitatearen deskribapena agertzen den: *“zona señalizada y pintada para el uso exclusivo de minusválidos o minusválías autorizadas”*en aparkatzea.
- Kexagileak aurkeztutako alegazio-idazkia, non salatutako egitatea ukatzen duen: *“...el lugar donde estaba estacionado mi vehículo no es una zona señalizada para uso exclusivo de minusválidos. Mi vehículo se encontraba estacionado de forma paralela a la plaza reservada para minusválidos. En el*





lugar donde estacioné mi vehículo no consta ninguna señal que prohíba o limite el estacionamiento.”

Gainera, kexagileak argazki batzuk aurkeztu ditu, bere ustez, egitateen inguruan eman duen bertsioa babesten dutenak. Halaber, frogaldi bat irekitzeko eskatu du, agente salatzaileak salatutako egitatearekin lotutako datuak edo frogak aurkezte aldera.

- Agente salatzaileak egindako salaketaren berrespena, honako termino hauetan idatzitakoa:

“Existe un error en la redacción del hecho que constituye la infracción.

En el texto debía decir:

“Vehículo estacionado, de forma paralela, a otro vehículo estacionado en zona señalizada y pintada exclusivamente para el uso de minusválidos y que no permite el acceso a dicho vehículo a su conductor con minusvalía, al estar muy junto.

Por lo tanto, mantengo la infracción del conductor del vehículo (...) a (...).

Habrá que pintar mayor espacio para los vehículos que estacionen en espacios reservados para personas con minusvalías o discapacidad físicas”.

3.-Udalak erakunde honi eman dion administrazio-espedientean ez dira salaketaren jakinarazpena eta zehapen-espedientearen hasiera agertzen, ezta zehapen-ebazpena ere. Gainera, Guardiako Udalak ez du kexagileak kexan adierazitako gaien inguruko informaziorik eman.

Gogoetak

1.-Adierazi dugun bezala, lehenik eta behin, nabarmendu behar dugu, eskatu arren, Arartekoak ez dakiela zein den inplikaturako udalak kexaren xedearen inguruan duen iritzia. Hortaz, kexaren sustatzaileari jarritako zehapenaren gainean ateratzen den ondorioa soilik oinarritu beharko da ebazpen honen aurrekarietan deskribatutako dokumentazioaren analisian.

Berriz ere azpimarratu behar da erakunde honekiko lankidetzaren otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 23. artikulua ezarritako legezko betebeharrak dela. Horren arabera, Arartekoak errekeritutako erakundeek, lehenetsunez eta premiaz, eskatzen zaizkien datu, dokumentu, txosten edo argibide guztiak aurkeztu beharko dituzte.

2.-Kexaren sustatzaileari jarritako trafikozehapenaren balorazioa egiteko, egitateak gertatu zirenean indarrean zegoen Trafikoari, Motordun Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua onartu duen martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuaren 73.2 artikulua xedatzen duena hartuko dugu oinarritzat. Horren arabera, trafikoko salaketa, agente salatzaileak berehala jakinarazten duenean, zehapen-prozedura hasteko egintza bihurtzen da, ondorio guztietarako.





Hala eta guztiz ere, salaketak zehapen-espedientearen hasiera eragiten du, soilik berehala jakinarazten bazaio salatutako pertsonari. Izan ere, artikulua berak ezartzen duenaren arabera, berehala jakinarazi ezin denean, zehapen-prozedura legean tipifikatutako arau-hausteak izan daitezkeen egitateen berri duen aginte eskudunak hasiko du ofizioz. Hau da, administrazio eskudunak egitateak kalifikatu behar ditu eta zehapena graduatu, edo agentea salatzaileak egindako kalifikazioa eta ezarritako zehapena egiaztatu eta zehapen-espedientea hasi.

Aztertzen ari garen kasuan agenteak salatutako egitatea aparkaleku araugabe bat denez eta gidaria bertan ez zegoenez, ezinezkoa zen salaketa berehala jakinaraztea. Beraz, geroago jakinarazi behar zen, jotzeko legez aurreikusitako moduan jakinarazi zitzaiola eta interesdunak hori existitzen zela eta zehapen-espedientea ireki zela zekiela, edo jakiteko aukera izan zuela.

Hala eta guztiz ere, erakunde honek ikusi ahal izan duen dokumentazioaren azterketan adierazten da Ertzaintzako agenteak kexagilearen ibilgailuan utzi zuela salaketa bat; bertan, salatutako egitatearen deskribapena jasotzen zen. Hala ere, dokumentazio horren artean, ez dago salaketaren jakinarazpena, ezta zehapen-espedientearen irekitzea ere.

Horregatik, erakunde honek uste du espedientearen ez dela agertzen antolamendu juridikoan aurreikusitako funtsezko izapideak betetzen direnik, kexa honen xede den zehapen-espedientea bezalako espedienteak irekitzeari dagokionez.

3.-Aurrekoa gorabehera, dokumentazioaren analititik, ondoriozta daiteke kexagileak aukera izan zuela udalari jotzeko eta alegatzeko bere ibilgailua ez zegoela aparkatuta salaketan adierazitako lekuan, baizik eta aparkatzea debekatuta zegoela adierazten zuen seinalerik ez zegoen leku batean. Horrez gain, aukera izan zuen adierazteko eskatu zuela agente salatzaileak salatutako egitatearen frogak aurkezteko.

Hau da, espedientearen agerrarazi da interesdunak salatutako egitatearen berri izan zuela; hori ukatu zuela eta udalari eskatu ziola egitatea frogatzeko. Hortaz, udalari dagokio arau-haustearen frogak aurkeztea.

Zehapen-prozedurako frogari dagokionez, garrantzitsua da adieraztea oinarritzat hartu behar den errugabetasun presuntziorako eskubideak esan nahi duela zehapena egozketa-frogako edo egotzitako jokabidea leporatzen duten baliabideetan edo egitatearen oinarrituta egon behar duela eta frogaren zama salatzen duenari dagokiola. Hala, inor ez dago behartuta bere errugabetasuna frogatzera. Horrez gain, egindako frogaren emaitzetan dagoen edozein urritasunak absoluzio-erabaki batera eraman behar du.

Bestalde, trafiko alorreko zehapen-prozeduran frogatzeko asmoz, jurisprudentziak onartu du agente salatzailearen aitortzea, berretsi ondoren, frogaren nahikoa dela berez, Konstituzioaren 24.2 artikulua arabera, konstituzio-arau honetan aurreikusitako errugabetasun presuntzioa ezabatzeko, agenteak berak zuzenean egiaztatutako gertakariei buruz ari bada.





Kexa honetan zalantzan jarri den zehapen-prozeduran, udalak salaketa berresteko eskatu zion agente salatzaileari. Izan ere, ibilgailuan utzitako salaketa-buletinean agertzen den salatutako egitatea “*Turismo estacionado en zona señalizada y pintada para el uso exclusivo de minusválidos o minusválías autorizadas*” da; aldiz, horren berrespenean, agente salatzaileak aitortzen du akats bat dagoela eta beste egitate bat aipatzen du:

“Existe un error en la redacción del hecho que constituye la infracción.

En el texto debía decir:

“Vehículo estacionado, de forma paralela, a otro vehículo estacionado en zona señalizada y pintada exclusivamente para el uso de minusválidos y que no permite el acceso a dicho vehículo a su conductor con minusvalía, al estar muy junto.

Por lo tanto, mantengo la infracción del conductor del vehículo (...) a (...).

Habrá que pintar mayor espacio para los vehículos que estacionen en espacios reservados para personas con minusvalías o discapacidad físicas”.

Begi bistakoa da agente salatzaileak berresteko egindako txostenean deskribatutako egitatea ez datorrela bat salaketan deskribatutako egitatearekin, hau da, honekin: “*el estacionamiento en zona señalizada y pintada para el uso exclusivo de minusválidos o minusválías autorizadas*”. Bat ez etortzeaz gain, agenteak berrespenean bertan adierazi du akats bat dagoela salatutako lehenengo egitatearen idazketan; halaber, agerrarazi du beste egitate batengatik jarri zela: “*el estacionamiento de forma paralela a otro vehículo que sí se encuentra estacionado en zona reservada que impide el acceso del primero a esta zona*”.

Horrenbestez, Arartekoaren ustez, kexaren xede den zehapen-espedientearen izapidean, ez dago kexagileari jarritako zehapena justifikatzen duen frogarik, agenteak bere ibilgailuan, –“*Estacionamiento en zona señalizada y pintada para el uso exclusivo de minusválidos o minusválías autorizadas*”-, utzitako salaketan agertzen den arau-haustearen erantzule gisa. Izan ere, dirudienez, administrazio-espediente beraren eta kexaren sustatzaileak adierazitakoaren arabera, arau-hauste eta egitate horiengatik jarri zitzaion zehapena.

Aurrekoaz gain, adierazi beharra dago ez dela jaso zehapen-espedientearen izapidean interesdunak aurkeztutako argazkiak balioztatu zirenik; izan ere, interesdunaren ustez, argazki horiek ere agente salatzailearen hasierako bertsioa ezeztatzen zuten eta horrek esan nahi du ez dela bete interesdunak aurkeztutako frogak ez onartzea arrazoitzeko betebeharra. Horretarako, horien desegokitasunaren legezko kasuren bat ematen dela justifikatu behar da, hau da, egitateekin daukaten harremana dela-eta, ustezko erantzulearen aldeko azken ebazpena aldatu ezin dutenak edo horiek ageriki desegokiak direnean edo beharrezkoak ez direnean.

Horregatik guztiatik, Arartekoak uste du ez dela salatutako egitatea frogatu eta, horrela, **errugabetasun presuntzioaren** printzipioa urratu egin dela, Espainiako Konstituzioaren 24. artikuluan eta egitateak gertatu zirenean indarrean zegoen Herri-administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko





30/1992 Legearen 137.1 artikuluan araututakoa: *"Frogatu gabeko administrazio-erantzukizunik ezaren presuntzioa errespetatuko da zehatzeko prozeduretan"*.

4.-Espedientean dagoen dokumentazioaren azterlanak eramaten gaitu, azkenik, egiaztatzen bertan ere ez dela agertzen zehapen-ebazpena. Izan ere, instruktoreak horretan oinarritu behar zituen, arrazoituz, egitateak eta horien kalifikazio juridikoa; hala badagokio, egitate horiek eragiten duten arau-haustea; erantzulea eta ezartzen zitzaion zehapena.

Horrenbestez, ez da jaso zehatutako pertsonari jakinarazi behar zitzaion administrazio-erabakiaren prozesu logiko eta juridikoaren garapena, hau da, administrazio-erabakiaren motibazioa. Hori dela-eta, erakunde honek bat egiten du interesdunaren bertsioarekin, hau da, ez zitzaioela zehatzeko ebazpena jakinarazi eta, alegatu duen bezala, ez zuela horren berri izan premiamenduzko prozeduraren berri eman zitzaion arte.

Baina, horrez gain, zehapen-ebazpenaren motibazioa denez administrazio-egintza legezkotasunarekin konektatzen duena, azkenik, interesdunak ez daki zein den espedientean ezarritako zehapena konektatu zen jokabide espezifikoaren deskribapena, ezta horren eta legezkotasunaren arteko konexioa zein den ere. Hala, horrek babesgabetasuna eragiten dio, ez dituelako ezagutzen salatutako egitatea ezagutzeko eta hori defendatzeko aukerak eta alegazioen garrantzia. Horregatik guztiagatik, berriz ere ikusten dugu espedientean ez dela jaso antolamendu juridikoan aurreikusitako funtsezko beste izapide bat betetzen denik, zehapen-prozedura bat izapidetzeari dagokionez.

5.-Orain arte azaldutakoak erakusten du, erakunde honen ustez, Guardiako Udala trafiko alorreko zehapen-prozeduren izapiderako ezarritako jarraibideetatik aldendu dela. Izan ere, jarraibide horiek egitateak gertatu zirenean indarrean zegoen Trafikoari, Motordun Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua onartu zuen otsailaren 25eko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuan ezartzen dira; horrek hauxe adierazten du 70. artikuluan: *-Garantía del procedimiento- ezartzen du "No se podrá imponer sanción alguna por las infracciones tipificadas en esta Ley sino en virtud de procedimiento instruido con arreglo a lo dispuesto en el presente Capítulo y en las disposiciones reglamentarias que lo desarrollen y, supletoriamente, por lo dispuesto en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común"*.

Begi bistakoa da zehapen-prozeduraren bermea, ustez erantzuleak diren pertsonentzat, ez dela lege zehatzeko ahalmena gauzatzeko ezarritako prozedura bat existitzera mugatzen. Izan ere, hori gauzatzeko, alde aurretik dagokion prozedura izapidetu behar da eraginkortasunez. Hau da, edonola ere, ezingo da zehapenik jarri beharrezko prozedura izapidetu gabe. Horrela, "erabateko zehapenak" saihestuko dira, hau da, araudian ezarritako prozedura izapidetzearen ondorioz jartzen ez direnak, baizik eta zuzenean.

Aztertzen ari garen kasuan, zehapen-prozedura izapidetzean, izapide batzuk ez egiteaz gain, ez dira bete inola ere hori definitzen duten funtsezko betekizunak. Zehapena jarri egin da bestelako jarduketarik burutu gabe, agente batek ibilgailu





batean utzitako salaketaz gain; izan ere, agente horrek geroago aitortu izan du egitatearen deskribapenean okertu zela. Hala, ez da espedientea hasteko erabakirik hartu eta ez da behar beste arrazoitutako eta behar bezala jakinarazitako ebazpenik eman.

Horregatik guztiagatik, espedientearen izapidean une honetara helduta, kexa honen harira hasitako jarduketari amaiera ematea erabaki du Arartekoak honako gomendio hau emanez:

GOMENDIOA

Guardiako Udalak trafikoko 0489250 zehapen-prozeduran jarritako zehapena indargabetzeko *“en zona señalizada y pintada para el uso exclusivo de minusválidos o minusválidas autorizadas” en aparkatuta egoteagatik.*



